



Ekipoa	Koipe-kentze eta/edo fosfatazio organikoa
Kodea	F-6009
Ingurumen-hobekuntza	<p>Energia elektrikoaren kontsumoa murrizten da. Uraren kontsumoa murrizten da.</p> <p>Ez da ia hondakinik sortzen.</p>
Honetan datza:	<p>Koipe-kentze eta/edo fosfatazio organikoak gainazal metalikoei, estadio bateko operazio bakarrean eta giroko tenperaturan, koipea kentzea eta fosfatatzea ahalbidetzen du.</p> <p>Prozesu horretako agentea molekula-pisu handiko polifosfato organiko berezi bat da. Bere ezaugarri lipofilikoei esker, operazio bakarrean olio, koipez eta xaboiz kutsatutako gainazalei koipea kentzea lortzen du. Hala, tratamenduaren bukaeran gainazal metalikoak babestuta geratzen dira, film polimeriko batez estalitako burdinazko eta zinkeko fosfato mistoen geruza fin batekin.</p> <p>Base urtsuan funtzionatzen duten produktu fosfo-koiepagabetzaileen edo zink-, manganeso- edo burdina-gatzak dituzten produktu fosfatatzaileen kasuan ez bezala, fosfatazio organikoak anhidro-sisteman funtzionatzen du, eta aipatutako prozesuko polifosfatao disolbatzaile organikoen nahasketa egoki batean disolbatzen da.</p> <p>Prozesua operazio bakarrean egiten da, murgilketaren edo ihintzaduraren bidez.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Murgilketaren bidez, koipea kentzea, fosfatatzea eta korrosioaren kontrako erresistentzia handia ematen duen estaltze-geruza bat ematea lortzen da eta aplikatutako pinturaren propietate fisiko-kimikoak nabarmen hobetzen dira. - Ihintzaduraren bidez, automatikoan edo semiautomatikoan lan egitea eskatzen duten ekoizpen handietarako koipe-kentzea eta fosfatatze egokiak lortzen dira. <p>Koipe-kentze eta/edo fosfatazio organikoa honako fase hauetan laburtzen da:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Tratatu beharreko piezak polifosfato organikoa daukan bainuarekin ihintzatu edo bertan murgiltzen dira. 2. Metalaren gainazaleko kutsatzaile koipetsu edo oliotsuak disolbatzaileen bidez kentzen dira. 3. Polifosfatoek kutsatzaileak bildu edo xurgatzen dituzte. 4. Metalari heltzen diote eta haren gainazalean fosfato mistoen geruza garden bat osatzen hasten da. 5. Piezak xukatu eta lehortzen dira, disolbatzaileak lurratzen dira eta



	<p>erreakzioa osatzen da.</p> <p>Sistema horren bidez substratu hauek tratatu daitezke: altzairua, burdinurtua, aluminioa, eta bere aleazio arin gehienak, plantxa elektrozinkatua, galbanizatua, etab. Silizio kopuru handia duten aluminiozko aleazioek itsaspen-arazoak eman ditzakete, beraz, aurretratamendu/pintura sistema osoan entsegu</p>
<p>Zein sektoretan aplikatu daitekeen</p>	<p>Teknologia hori, nagusiki, metalezko piezak fosfatazio bidez tratatzeko erabiltzen da. Fabrikazioko hainbat sektoretan behar izaten da, esaterako:</p> <ul style="list-style-type: none">- Metalurgia; burdinazko, altzairuzko eta burdin aleaziozko produktuen fabrikazioa (EJSN 24).- Produktu metalikoen fabrikazioa, makineria eta ekipoa salbu (EJSN 25).- Material eta ekipo elektrikoen fabrikazioa (EJSN 27).- Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa (EJSN 28).- Ibilgailu motordunen, atoiaren eta erdiatoiaren fabrikazioa (EJSN 29).- Beste garraio material baten fabrikazioa (EJSN 30).- Manufakturako beste industria batzuk (EJSN 32).